

Inaki Goirizelaia

Ingeniaritza irakastea

I. Olabari / Bilbo • Inaki Goirizelaia EHUko Ingeniaritza Eskolan irakasle da. Eskolako Ingeniaritza Telematikoko atalcan egiten ari diren lanarekin pozik ageri da. Teknologiarene munduan gauzak aldatzen diren abiaduran aldatuta, ez dago egonkortasunik bermatzerik.

■ **Prestatzen ari zaretelen sistemak zenbat urtetan iraun dezake?**

Hori esaten zaila da. Gaur egun batez ere. Estatu Batuetan aldaketa ikaragarria etorriko da azken hauteskundeetan munduaren aurrean lotsagarri geratu eta gero. Dirutza inbertituko dute, eta patek daki zer egon daitekeen merkatuan hurrengo Estatu Batuetako hauteskundeak egiten diren egunean.

■ **Zein abantaila ditu behmen sortzen ari zaretelen hauteskundeak?**

Sistema eroso da, osagarria delako gaur egun buzkatzeko dugun sistemarekin.

■ **Estatu Batuetako hauteskundeetarako balloko luke?**

Bai. Egokia izango litzaiteke. Produktuaren arduradunak Ameriketara izan dira, eta oso harrera ona izan du, batez ere Hegoamerikan. Produktu ona da, eta enpresek etekin aterako diotela uste dut. Zenbat urtean iraun dezakeen esatea zaila da. izan ere, Internet bidezko hauteskundeak ere aipatzen dira.

■ **Internet bidezko hauteskun-**

«Internet bidezko botoak kolokan jartzen du demokrazia parlamentarioaren oinarria»



deek aurrerapauso handia ekarriko dute, ezta?

Honi badator. Ez daukat zalantzarik. Ez dakit lau urte barru ala hamar urte barru izango den, eta non erabiliko den, hauteskundeetan, erreferendumetan...

Internet bidezko botoak de-

mokrazia parlamentarioa kolokan jartzen du —hori utopia bat da, baina—. Demokrazia parlamentarioa dago nik ezin dudalako beti botoa eman. Orduan nik nire ordezkariak hautatuko ditut haiek nire ordezkariak botoa eman dezaten behar den tokian. Internet bidezko botoa zabalitzen bada eta egun jakin batean parlamentuan lege proposamen bat bozkatu behar bada, zergatik ez dut nik neure botoa zuzenean eman-go.

Filosofia aldaketa bat etor liteke hortik. Erreferendumak erazago egin ahalko liriteke, inkestak ere bai. Aldaketa handia dator, ikusi behar da nola gauzatzen den.

■ **Hori posible da epe laburrera?**

Epe laburrera posible dena da aukera desberdinak eskaintzea: Internet bidezko botoa eta boto emateko bide ohikoa. Trantsizio bidea esan liteke, baina teknologien munduan ez dakit trantsizio hitza erabil daitekeen. Lau urteren buruan, sarean, ordonagailuetan... izango diren aldake-

«Estatu Batuetan azken hauteskundeetan lantsagarri geratu dira munduaren aurrean. Orain sistema aldatu beharko dute»

tak ikaragarriak izango dira. Botoa emateko modua aldatuko da, seguru.

■ **Interneten sartzen diren datuen kasuan babes falta dagoela ere esaten dute. Hori ez da eragozpena hauteskunde batzuen aurrean, esate baterako?**

Interneten erabiltzen diren prozesuak oso seguruak dira. Gertatzen da hacker-en ekintzek agerian uzten dituztela arazo batzuk. Berez protokolo seguruak dira.

Guk banketxeetako txartelak erabiltzen ditugu. Inolako beldurrik gabe erabiltzen ditugu, gainera, eta han barruan izaten da kasu askotan gure soldata, eta hura baino segurtasun gutxiago duenik... Egia da segurtasun arloan badagoela oraindik ere zeregin ugari.